



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

2018/01/25

Bizkaiko Batzar Nagusiek JEZ-IAE aldatzeko proposamen bat jaso dabe

Bizkaiko Batzar Nagusietako Eskaeretakako eta Herritarrakazko Hartu-emonetakako Batzordeak ekimen bat jaso dau gaur Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergea arautzen dauen Foru Araua aldatzeko. Eskaerea, Barrilero y Asociados bufeteko Antonio Tena abogaduak aurkeztu dau.

Letradunaren proposamena lau puntutan oinarritu da:

- Jarraibide objektiboa kaleak kategorien arabera sailkatzeko orduan.
- Erespide bardintzailea hartzea enpresei hobariak apliketako orduan, enplegu sorrerea edo ingurumenagaz erlazionautako erespideak, beste batzuen artean.
- Irabazi urriak dituen enpresentzat murrizketak ezarten dituan Foru Arauaren 8. artikulua aldatzea.
- Aldaketa elektrizitatearen kontsumoaren tributazioan, benetan kontsumidu edo kontratau dan energiarengaitik ordaintzeko, instalautako potentziarengaitik izan beharrean.

Talde politikoez, bakotzak bere ñabardurakaz, modu positiboan baloratu dabe herritarren ekimenaren aurkezpena. Talde Mistoa eta Popularra bat etorri dira, orokorrean, planteamenduagaz, eta Podemos Bizkaia eretxiz “arrazoizkoa” izan da, udalen finantzaketan izan daitezkeen eraginak dirala eta arduratuta agertu dan arren. Euskal Sozialistak taldea Ogasun Sailari kontsulta bideratzearen alde agertu da, eta EH Bilduk adierazo dauenez, Udalak dira finantzaketan kaltearen dagozan administrazioak eta, hori dala eta, guzurtau egin dau Udalek dirua batzeko asmoa daukienik. Euzko Abertzaleak taldeak aldatu gura dan tributuen konplexutasuna nabarmendu dau, eta edozein aldatetako erespide bi izan behar dituala kontuan azpimarratu dau: enpresen jarduera ekonomikoaren eta baliabide publikoen arteko oreka, eta ekonomiako sektore guztiak ikuspegi orokor bakarragaz tratatuak izan beharra.

Eskaeretakako eta Herritarrakazko Hartu-emonetakako Batzordea 2015eko bagilean jarri zan martxan, eta herritarrek euren eskaerak politikarien aurrean zuzenean aurkezteko foroa da. Talde politikoez esku-hartzeko txandea daukie, konbidautako pertsonari galderak egiteko, eta talderen batek ekimena bereganatzen badau, gaia jagokoa Batzordera eroan ahal izango da, Arauz Besteko Proposamen moduan, bertan eztabaidatzeko eta, halan bada, onesteko.

HERRITARREN BIGARREN PROPOSAMENA

Gaur goizeko saioan beste proposamen bat be landu da, Marisol Rubiales herritarrak aurkeztutakoa, ordaintzaile bat baino gehiago dagoanean PFEZren auto-kitapena aurkeztu behar gaiten gainekoa. Batzordekideek Ogasun Sailari horren gaineko txostena eskatzea erabagi dabe, eta euren eretxia geroago emongo dabela adierazo dabe, proposamena sakon aztertu eta gero.

NOTA DE PRENSA

25/01/18

Las Juntas Generales de Bizkaia reciben una propuesta de modificación del IAE

La Comisión de Peticiones y Relaciones con la Ciudadanía de las Juntas Generales de Bizkaia ha recibido hoy una iniciativa para la modificación de la Norma Foral reguladora del Impuesto sobre Actividades Económicas (IAE). La petición ha corrido a cargo del abogado Antonio Tena, del bufete Barrilero y Asociados.

La propuesta del letrado se ha sustanciado en cuatro puntos:

- Una pauta objetiva a la hora de clasificar las calles por categorías.
- La adopción de un criterio igualitario a la hora de aplicar bonificaciones a las empresas, como puedan ser la creación de empleo o los criterios medioambientales.
- La modificación del artículo 8 de la Norma Foral, que establece deducciones para las empresas con escasos beneficios.
- Un cambio en la tributación por consumo eléctrico, en la que se pague por la energía realmente consumida o contratada en lugar de por la potencia instalada.

Los grupos políticos han valorado positivamente, con diferentes matices, la presentación de la iniciativa ciudadana. Los grupos Mixto y Popular han compartido, en términos generales, el planteamiento, y Podemos Bizkaia lo ha calificado de “razonable”, si bien mostrando su preocupación por sus potenciales efectos en la financiación municipal. El grupo Socialistas Vascos se ha mostrado a favor de trasladar una consulta al Departamento de Hacienda, mientras que EH Bildu ha puesto de manifiesto que los ayuntamientos son las administraciones más perjudicadas en cuanto a financiación, y en este sentido ha negado que exista un afán recaudatorio por parte de los consistorios. El grupo Nacionalistas Vascos ha puesto el acento en la complejidad del tributo que se quiere modificar, y ha subrayado la necesidad de que cualquier reforma tenga en cuenta dos criterios: el equilibrio entre la actividad económica de las empresas y los recursos públicos, y que todos los sectores económicos sean tratados con una única visión global.

La Comisión de Peticiones y Relaciones con la Ciudadanía se puso en marcha en junio de 2015 y supone un foro para que los ciudadanos presenten en primera persona sus demandas a los políticos. Los grupos políticos tienen un turno de intervenciones para cuestionar a la persona invitada, y si alguno asume la iniciativa, el asunto puede ser llevado a la Comisión correspondiente con rango de Proposición No de Norma para su debate y aprobación en su caso.

SEGUNDA PROPUESTA CIUDADANA

En la sesión de esta mañana se ha tratado una segunda proposición, presentada por la ciudadana Marisol Rubiales, sobre la obligación de presentar la autoliquidación del IRPF cuando existen varios pagadores. Los junteros han acordado solicitar un informe al efecto al Departamento de Hacienda, y han manifestado que se pronunciarán más adelante, tras un estudio en profundidad de la propuesta.